

IRABAZI-ITURRIAK

Gure jatetxeko prezioak finkoak izango dira; hau da, produktu berberaren prezioa ez da aldatuko egun batetik bestera.

1. **Ezaugarrien araberako prezioa:** produktuaren **kopuruaren edo kalitatearen araberako prezioa**. Gure jatetxean, prestatutako platerak edo produktu espezifikoek ez dute prezio aldaketarik izango. Dena den, osagai espezifiko batzuek bai eragingo dutela prezioaren igoeran. Bakoitzak bere platerak, entsaladak, bokatak... pertsonalizatzeko aukera izango du ere bai, nahi izanez gero. Horregatik, osagai bakoitzak, prezio jakin bat izango du eta bukaerako produktuak dituen ezaugarri kopuru eta kalitatearen arabera prezio osoa kalkulatuko.

Gure produktu izarrarak bi izango dira:

1. **TURRA TOAST:** Gure produktu izarra izango da, azkar jateko tostada. Egun guztian zehar egongo da salmentan. Ogia lortzeko Artepan okindegiarekin hitz egingo dugu, bere ogi tradizionala erabiliko dugu. Bakoitzak 2,30€ prezioan erosiko dugu eta 25 zatitan moztuko dugu. Beraz tostada bakoitzeko zatiaren kostua 0,11€koa izango da. Hauen gainean, hainbat elikagai jarriko dizkiogu; haragi xehatuarekin (25 g) beraz 0,39 €, rukularekin 0,05€, piperrak 0,13€ eta tomatearekin 0,08€. jatetxeari TURRA TOAST 0,76 € kostatuko zaio, jakinda argindarra, langileen soldata eta hainbat kostu ordaindu behar ditugula, prezioa gutxi gora behera, 3'50€-koa izango da.
2. Bowl Arabarra izango da, bowl hau, lehengo atalean, oinarri moduan, espinakak jarriko ditugu, horren gainean, patatak jarriko ditugu, honek zati txikitik jarriko dugu. Idiazabal gazta zatiak jarriko ditugu ere bai. Azkenik, arabako piperrak botako dizkiogu. Honen gainean, krema moduko bat botako diogu. Krema hau azanarioekin engingo dugu. Azanarioei esnea bota eta arabako ardo pixka bat, dena nahastuko dugu eta bowl honetan botako dugu. Prezioa, 5,95€koa izango da.



2. **Merkatu-segmentuaren** eta bere ezaugarri berezien **araberako prezioa**: bezero jakin baten **profilaren arabera ezartzen den prezioa** da. Adibidez, eskari handiena duen produktuak, berezitasun horrengatik, prezioa igo egingo delarik, hori ordain dezakeen jendeak erosi ahalko dute. Honek eramango gaitu, modu batean edo bestean prezio dinamikoak erabiltzera **Denbora errealeko merkatua: eskaintza eta eskaeraren legearen arabera** finkatzen da prezioa. Gutxi gora behera horren arabera.

Honekin esan nahi duguna da, produktu konkretu batek, eskari handia baldin badauka bezeroen artean, irabaziak ahalik eta handienak izateko produktu jakin hori azkenean prezioz aldatuko dugu, baina ez da uneoro prezioz aldatzen joango.

